AURKIBIDEA

1. SARRERA 2

2. MAIATZAREN 25EKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ARABAN, BIZKAIAN, GIPUZKOAN ETA NAFARROAN 2

3. EUROPAKO ESTATUEKIN ALDERAKETA: EUROPAKO BATASUNEKO INDAR POLITIKO GEHIENEK BAINO BABES SOZIAL HANDIAGOA IZAN DUTE LEGEZ KANPOKO KANDIDATUREK HEGO EUSKAL HERRIAN 4

4. HAUTESKUNDEETATIK ERATORTZEN DEN INSTITUZIO ORDEZKARITZA 5

5. ILEGALIZAZIOEK ERAGINDAKO MAPA POLITIKOAREN DISTORTSIOA (I): NORA JOAN DIRA LEGEZ KANPO UTZITAKO ZERRENDEI LEGOZKIEKEEN ESERLEKUAK? 6

6. ILEGALIZAZIOEK ERAGINDAKO MAPA POLITIKOAREN DISTORTSIOA (II): GEHIENGOEN OSAKETA 7

I. ERANSKINA: METODOZKO ARGITZAPENAK 10

II. ERANSKINA: EUROPAKO PARLAMENTUKO OSAKETA, ESTATUZ ESTATU 13

1. Sarrera

Hauteskundeen biharamunean, Berme Batzordeak hauteskunde horien emaitzen lehen estimazio bat plazaratu zuen. Honako honetan, eta jada mahaiez mahai zenbatutako bozketan oinarrituta[1], behin betiko emaitza orokorrak aurkeztera goaz, datuen irakurketa labur batekin batera.

2. Maiatzaren 25eko hauteskundeen emaitzak Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan

A eta B tauletan maiatzaren 25eko hauteskundeen emaitzak biltzen dira. Bertako datuak irakurrita, zera ondoriozta dezakegu:

- Udal hauteskundeetan, 159.656 herritarrek eman dute Herri Plataformen aldeko bozka, eta bozka horiek egun horretan kandidaturei emandako bozken %10,3 a osatzen dute. Zehazki, modu honetan banatzen dira Herri Plataformek eskuratutako bozkak: legez kanpoko Herri Plataformek 135.097 bozka lortu dituzte eta beste 24.559 plataforma legeztatuek.

- Foru hauteskundeetan (Nafarroako Parlamenturako zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan) 144.547 herritarrek eman diote AuB-ri bozka, kandidaturei emandako bozken %9,3a, alegia.

[1] Txosten honetan emango diren datuen iturri eta eragiketetarako erabilitako prozeduren berri jakiteko, ikus Metodozko Argitzapenak.

A taula: 2003ko udal hauteskundeen emaitzak, herrialdeka

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa		Hegoaldea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	
Errolda	246.922		965.737		570.816		460.140		2.243.615	
Emanak	177.984		686.863		398.614		319.073		1.582.534	
Baliogabeak*	11.826		52.769		63.096		19.598		147.289	
Baliogabe teknikoak	1.350		4.059		2.829		3.954		12.192	
Zuriak	2.407		8.510		6.208		9.519		26.644	
Kandidaturei bozkak	174.172	100,0%	674.294	100,0%	389.641	100,0%	306.717	100,0%	1.544.824	100,0%
PNV/EA[2]	58.146	33,4%	292.998	43,5%	146.760	37,7%	16.696	5,4%	514.600	33,3%
PSE/PSN	35.171	20,2%	125.820	18,7%	90.208	23,2%	62.690	20,4%	313.889	20,3%
PP/UPN	46.485	26,7%	118.536	17,6%	47.793	12,3%	99.165	32,3%	311.979	20,2%
Herri Plataformak	11.121	6,4%	56.912	8,4%	68.700	17,6%	22.923	7,5%	159.656	10,3%
Legeztatuak	*645*	*0,4%*	*8.202*	*1,2%*	*8.433*	*2,2%*	*7.279*	*2,4%*	*24.559*	*1,6%*
Legez kanpo	*10.476*	*6,0%*	*48.710*	*7,2%*	*60.267*	*15,5%*	*15.644*	*5,1%*	*135.097*	*8,7%*
IU/EB	11.319	6,5%	56.377	8,4%	21.920	5,6%	22.185	7,2%	111.801	7,2%
ARALAR	2.973	1,7%	6.256	0,9%	7.703	2,0%	14.375	4,7%	31.307	2,0%
CDN							11.592	3,8%	11.592	0,8%
BATZARRE							8.449	2,8%	8.449	0,5%
UA	6.170	3,5%							6.170	0,4%
Besteak	2.787	1,6%	17.395	2,6%	6.557	1,7%	48.642	15,9%	75.381	4,9%

[2] Txosten honetan zehar, PNV eta EA banaturik aurkeztu izan diren udalerri eta barrutietako emaitzak ere, PNV/EA koalizioko emaitzekin bat emango ditugu.

B taula: 2003ko foru hauteskundeen emaitzak, herrialdeka

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa		Hegoaldea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Errolda	243.745		956.696		569.600		452.665		2.222.706	
Emanak	177.683		684.757		397.715		327.201		1.587.356	
Baliogabeak*	11.462		56.254		64.054		21.289		153.059	
Baliogabe teknikoak	1.305		3.592		2.400		1.215		8.512	
Zuriak	2.238		8.429		5.045		7.353		23.065	
Kandidaturei bozkak	174.140	100,0%	672.736	100,0%	390.270	100,0%	318.633	100,0%	1.555.779	100,0%
PNV/EA	59.064	33,9%	296.078	44,0%	156.278	40,0%	22.727	7,1%	534.147	34,3%
PP/UPN	47.339	27,2%	123.991	18,4%	50.424	12,9%	126.725	39,8%	348.479	22,4%
PSE/PSN	35.733	20,5%	128.724	19,1%	78.735	20,2%	64.663	20,3%	307.855	19,8%
AuB	10.157	5,8%	52.662	7,8%	61.654	15,8%	20.074	6,3%	144.547	9,3%
IU/EB	11.886	6,8%	56.205	8,4%	23.298	6,0%	26.834	8,4%	118.223	7,6%
ARALAR	3.588	2,1%	13.876	2,1%	18.708	4,8%	23.697	7,4%	59.869	3,8%
CDN							23.437	7,4%	23.437	1,5%
BATZARRE							7.897	2,5%	7.897	0,5%
UA	6.373	3,7%							6.373	0,4%
PH			886	0,1%			1.538	0,5%	2.424	0,2%
EKA			314	0,0%	199	0,1%	1.041	0,3%	1.554	0,1%
PLAZANDREOK					974	0,2%			974	0,1%

3. Europako estatuekin alderaketa: Europako Batasuneko indar politiko gehienek baino babes sozial handiagoa izan dute legez kanpoko kandidaturek Hego Euskal Herrian

Esan berri dugunez, udal hauteskundeetan 159.656 bozka Herri Plataformetara joan ziren, kandidaturei emandako bozka guztien %10,3a. Bestela esanda, bozka eman zuten hamar herritarretatik batek Herri Plataformen alde egin zuen. Herritarren alor horren tamaina irudikatzeko, ariketa xume bat egingo dugu, Europako Batasuneko testuinguruan kokatuz. Zehazki, C taulan 1999ko europar parlamenturako hauteskundeen emaitzen laburpen bat eskaintzen da, Europako Batasuneko 15 estatuetarako (datuak zehatz ikusteko, jo II. eranskinera). Taula hori osatzerakoan, honako puntuari erreparatu diogu: zenbat alderdik gainditzen dute euren estatuetan Hegoaldean Herri Plataformek lortu duten babesa eta zenbat gelditzen diren maila horren azpitik.

Europako Parlamentuko datuen arabera, 1999ko europar hauteskunde horietan ordezkaritza instituzionala lortu zuten alderdi gehienak (110etik 66) ez dira iristen euren estatuetan maila horretara. Esan beharrik ez dago, ordezkaritzarik lortu ez zuten ehundaka eta ehundaka alderdiak ere maila horren azpitik gelditzen direla.

C taula: Europako Batasuneko alderdien eta Herri Plataformen bozken alderaketa (1999ko europar hauteskundeetan kandidaturei emandako bozkekiko %etan oinarrituta)

		Kandidatura horietatik...	
	Europako Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten kandidatura kopurua, estatuka (1999ko hauteskundeak)	**Euren estatuetan bozken %10,3 baino gehiago lortu zuten kandidatura kopurua**	**Bozken %10,3 baino gutxiago lortu zuten kandidatura kopurua**
Alemania	5	2	3
Austria	4	3	1
Danimarka	8	3	5
Belgika	11	2	9
Espainia	9	3	6
Finlandia	7	4	3
Frantzia	9	3	6
Grezia	5	2	3
Herbehereak	7	4	3
Irlanda	5	3	2
Italia	18	2	16
Luxenburgo	4	4	0
Portugal	4	2	2
Erresuma Batua	7	3	4
Suedia	7	4	3
BATURA	**110**	**44**	**66**

Bestela esanda, Herri Plataformek ordezkatzen duten joera politikoak babes sozial handiagoa du Hego Euskal Herrian, Europako alderdi politiko gehienek euren estatuetan dutena baino. Horrela, adibide xume batzuk baliatuz, Herri Plataformek Euskal Herrian baino babes txikiagoa dute euren estatuetan Alemaniako berdeek, Frantziako PCFk edota Espainiako IU-k.

Gure ustez, datu hauek ondo irudikatzen dute euskal gizartearen zein alor zabalaren eskubideak urratu diren egin berri diren hauteskunde hauetan. Izan ere, eta gertatutak gertatu, gizartearen alor zabal batek ez du egungo arauen barnean ordezkaritza eta joko politikoan parte hartzerik izango

4. Hauteskundeetatik eratortzen den instituzio ordezkaritza

Ezin da jakin maiatzaren 25eko hauteskundeetan aukera politiko guztiei parte hartzen utzi izan balitzaie zeintzuk izango ziren emaitzak. Kalkulatu daiteke, ordea, zein den maiatzaren 25ean herritarren bozken arabera aukera politiko bakoitzari dagokion ordezkaritza instituzionala eta zein izango den ordezkaritza ofiziala. Hain zuzen, ariketa bikoitz hori egiten dugu D eta E tauletan.

Bertan ikus daitekeen bezala, AuBk 3 parlamentari izango lituzke Nafarroan, batzarkide 1 Arabako Batzar Orokorretan, 4 Bizkaikoetan eta 7 Gipuzkoakoetan.

Udal ordezkaritzari dagokionez, PNV/EAren atzetik, Herri Plataformek lortu dute zinegotzi kopuru handiena, 712 zinegotzirekin (ikus E taula). Zinegotzi hauek, horrela banatuko lirateke hauteskundeak egin diren lau euskal lurraldeetan: 36 Araban, 170 Bizkaian, 278 Gipuzkoan eta 228 Nafarroan.

Laburtuz bada, 15 ordezkari beharko lituzke AuBk herrialde mailako erakundeetan, eta 712 zinegotzi Herri Plataformek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako udaletxeetan.

Herrialde mailan lortutako ordezkariak guztiak (hamabostak) galduko ditu AuBk; Herri Plataformek eskuratutako 712 zinegotzietatik, berriz, 240 besterik ez dituzte izango, gainerako 472ak legez kanpo utzitako zerrendei dagozkienak baitira.

D taula: Eserlekuen banaketa Nafarroako Parlamentuan eta Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako Batzar Orokorretan, herrialdeka

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Nafarroa			Hegoaldea		
	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea
PNV/EA	19	19		26	27	1	23	27	4	3	4	1	71	77	6
PP/UPN	15	16	1	9	10	1	7	8	1	21	23	2	52	57	5
PSE/PSN	12	12		10	11	1	11	12	1	11	11		44	46	2
AuB	1	-	-1	4	-	-4	7	-	-7	3	-	-3	15	-	-15
IU/EB	3	3		2	3	1	2	3	1	4	4		11	13	2
ARALAR	0	0		0	0		1	1		4	4		5	5	
CDN										4	4		4	4	
BATZARRE										0	0		0	0	
UA	1	1											1	1	
PH				0	0					0	0		0	0	
EKA				0	0		0	0		0	0		0	0	
PLAZANDREOK							0	0					0	0	
	51	51	0	51	51	0	51	51	0	50	50	0	203	203	0

E taula: zinegotzien banaketa, herrialdeka

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Nafarroa			Hegoaldea		
	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea
PNV/EA	221	240	19	725	824	99	391	537	146	52	65	13	1.389	1.666	277
PSE/PSN	33	36	3	117	130	13	109	130	21	255	258	3	514	554	40
PP/UPN	87	90	3	90	96	6	41	53	12	320	330	10	538	569	31
Herri Plataformak	36	10	-26	170	48	-122	278	69	-209	228	113	-115	712	240	-472
Legeztatuak	*10*	*10*	*0*	*48*	*48*	*0*	*69*	*69*	*0*	*113*	*113*	*-*	*240*	*240*	*-*
Legez kanpo	*26*	*0*	*-26*	*122*	*0*	*-122*	*209*	*0*	*-209*	*115*	*-*	*-115*	*472*	*-*	*-472*
IU/EB	3	4	1	36	38	2	24	34	10	42	43	1	105	119	14
ARALAR	4	4	0	1	1	0	17	25	8	16	18	2	38	48	10
CDN										18	20	2	18	20	2
BATZARRE										15	16	1	15	16	1
UA	0	0	0										-	-	-
Besteak	24	24	0	65	67	2	88	100	12	830	858	28	1.007	1.049	42

5. Ilegalizazioek eragindako mapa politikoaren distortsioa (I): Nora joan dira legez kanpo utzitako zerrendei legozkiekeen eserlekuak?

Hauteskunde aritmetika ariketa bat eginez, azter dezagun zein alderdietara joango diren legez kanpo utzitako zerrendei egokituko zitzaien ordezkaritza instituzionala.

D taulan ikus daitekeen bezala, AuBren bozkek Nafar Parlamentuan eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusietan emango lituzketen 15 ordezkariak, honako alderdietara joan dira:

- 6 PNV/EA koaliziora.
- 5 PP-UPNra.
- 2 PSOEra.
- 2 IU/EB-ra.

Herri Plataformei dagozkien 712 zinegotzietatik 240 Herri Plataformen esku gelldituko dira (kandidatura legeztatuei baitagozkie zinegotzi horiek). Gainerako, 472 zinegotziak berriz, honako alderdietara joango dira:

- 277 PNV/EA koaliziora
- 41 PSOEra
- 30 PP eta UPNra
- 14 IU-ra
- 10 Aralar alderdira
- 2 CDNra
- 1 Batzarrera
- 42 Gainerako zerrendetara
- 55 zinegotzi, azkenik, ez lirateke inolako alderdi edo kandidaturara joango, udalerri horietan aurkeztutako zerrenda bakarra legez kanpo utzi ondoren, ez baitziren udal hauteskundeak egin.

Zifra horiek argiro adierazten digute, gainerako alderdiek berez dagokiena baino ordezkaritza zabalagoa izango dutela erakundeetan. Azpimarratzekoa da legez kanpo utzitako AuB eta Herri Plataformen eserleku gehienak (erdia baino dezente gehiago) PNV/EA koaliziora joango direla.

6. Ilegalizazioek eragindako mapa politikoaren distortsioa (II): gehiengoen osaketa

Honek guztiak, noski, euskal mapa politikoaren distortsioa eragiten du. Argiro esateko, euskal herritarrek euren bozken bidez esandakoa eta udal zein foru erakundeek izango duten osaketa ez datoz bat. Eta ez da bat etorriko halaber, herritarrek euren bozken bidez esandakoa eta erakunde horietan antolatu ahal izango diren agintaritza organuak. Horrela, hurrengo F taulan, balizko gehiengoen azterketa egiten da. Bertan ikus daitekeenez:

AuB legez kanpo uzteak, nabarmenki baldintzatuko du erakundeetan gehiengoak osatzea. Horrela, **herrialde mailako erakundetako gobernuen** osaketari erreparatuz, kasurik argiena Gipuzkoako Batzar Orokorretakoa dugu: bertan, AuB-ren zazpi batzarkideei parte hartzen utziko balitzaie, PNV/EAk ez luke emaitza ofizialek ematen dioten gehiengo absolutua eskuratuko (27 batzarkide ordez, 23 izango bailituzkete), eta hitzarmenak egitera behartua egongo litzateke, Batzar Orokorretako gehiengoarekin gobernatu nahiko balute bederen.

Udaletxeetan are nabarmenagoa da ilegalizazioek ekarriko duten panoramaren desitxuraketa eta distortsioa. Horrela, balizko gehiengo absolutu eta erlatiboen azterketa bat eginda, zera ondoriozta daiteke:

Herri Plataformek lortutako bozken arabera egokituko litzaizkiekeen 43 gehiengo absolutuetatik, 18 galduko lituzkete. Galdu egingo lituzkete halaber, gehiengo erlatiboa izandako 52 udalerrietatik 25etan gobernua osatzen ahalegintzeko aukerak. Azpimarra dezagun, gainera, “galtzen” diren udalerriak handiagoak direla, oro har, Herri Plataforma legeztatu baten gehiengoa dutenena baino. Horrela, gehiengo erlatibo edo absolutua izan eta “galtzen” direnen artean leudeke Hernani, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Leitza, Bera eta Etxarri-Aranatz bezalako udalerriak.

Gainerako alderdiek, aitzitik, euren gehiengo absolutu eta erlatiboak gehituta ikusiko dituzte:

- PNV/EA koalizioak, berez dagozkien 147 gehiengo absolutuak baino 32 gehiago izango dituzte ilegalizazioen ondorioz. Horietako asko, gainera, udalerri garrantzitsuetan, hala nola, Laudio, Bergara, Hernani, Ordizia, Oiartzun, Arrigorriaga, Galdakao, Gernika edo Lekeitio. Gehiengo sinpleak, bestalde, 189tik 203ra igoko dira (+14).

- PP/UPN-k 30tik 31ra igotzen ditu gehiengo absolutua duteneko udaletxeen kopurua (+1) eta 44tik 45ra gehiengo erlatiboa dutenena (+1).

- PSOEk 17tik 20ra igoko ditu gehiengo absolutuak (Eibarren, Antsoainen eta Trapagaranen) eta 38tik 39ra gehiengo erlatiboak.

F taula: kandidaturen gehiengoak udaletxeetan, herrialdeka

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Nafarroa			Hegoaldea		
	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea
GEHIENGO ABSOLUTUAK UDALETXEETAN															
PNV/EA	32	35	3	77	87	10	33	50	17	5	7	2	147	179	32
Herri Plataformak	1	1	0	1	1	0	18	9	-9	23	14	-9	43	25	-18
PP/UPN	5	5	0	1	1	0			0	24	25	1	30	31	1
PSE/PSN				1	2	1	1	2	1	15	16	1	17	20	3
IU/EB										1	1	0	1	1	0
ARALAR							1	1	0				1	1	0
CDN										1	1	0	1	1	0
BATZARRE										1	1	0	1	1	0
Besteak	2	2	0	5	5	0	14	14	0	135	138	3	156	159	3
GEHIENGO ERLATIBOAK UDALETXEETAN (gehiengo absolutuak barne)															
PNV/EA	40	40	0	99	100	1	44	56	12	6	7	1	189	203	14
Herri Plataformak	1	1	0	3	2	-1	23	10	-13	25	14	-11	52	27	-25
PP/UPN	6	6	0	1	1	0			0	37	38	1	44	45	1
PSE/PSN				4	4	0	6	7	1	28	28	0	38	39	1
IU/EB										1	1	0	1	1	0
ARALAR							1	1	0				1	1	0
CDN										1	1	0	1	1	0
BATZARRE										1	1	0	1	1	0
Besteak	2	2	0	5	5	0	14	14	0	150	153	3	171	174	3

Alderdika ez ezik, azterketa osa daitezkeen balizko akordioetara bideratuz, G taula eraiki dugu. Bertan, balizko lau koaliziok lor ahal izango lituzketen gehiengo absolutuak biltzen dira. Horrela:

- Balizko PP-PSOE hitzarmen batek, gehiengo absolutua lortuko luke berez Hegoaldeko 81 udalerritan. Ilegalizazioen ondorioz, kopuru hori 86ra igotzen da (+5). Zehazki, bestela lortuko ez luketen gehiengo absolutua osatzeko aukera izango lukete PP eta PSOEk Santurtzin, Atarrabian, Andoainen, Errenderian eta Zumarraga n.

- PNV/EA eta EB/IU-ren arteko hitzarmen batek, 165 udaletxe eskuratu ahal izango lituzke gehiengo absolutuz. Kopuru hori, 195ra igoko da ilegalizazioen ondorioz (+30).

- PNV/EA eta PSOEren arteko hitzarmen batek, 211 udaletxe eskuratu ahal izango lituzke gehiengo absolutuz. Kopuru hori, 230ra igoko da ilegalizazioen ondorioz (+19).

- Balizko PNV/EA eta Herri Plataformen arteko akordio batek, azkenik, 229 udaletxeetan agindu ahal izango luke gehiengo absolutuz. Ilegalizazioen ondorioz, 214 udaletara mugatzen da aukera hori (-15).

G taula: balizko koalizioen gehiengoak udaletxeetan, herrialdeka

	PP+PSOE			PNV/EA+IU			PNV/EA+PSOE			PNV/EA+HP		
	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea	Erreala	Ofiziala	Aldea
Araba	10	10	0	32	35	3	38	40	2	37	37	0
Gipuzkoa	4	7	3	35	56	21	50	63	13	67	62	-5
Nafarroa	62	63	1	6	8	2	21	24	3	29	21	-8
Bizkaia	5	6	1	92	96	4	102	103	1	96	94	-2
Hegoaldea	**81**	**86**	**5**	**165**	**195**	**30**	**211**	**230**	**19**	**229**	**214**	**-15**

I. ERANSKINA: Metodozko argitzapenak

Iturriak: Txosten honetan eskaini ditugun datuak bi iturritatik hartu ditugu:

- **Erakunde publikoak.** Zehazki:
  - Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako: Nafarroako Gobernuak eskainitako datuak.
  - Nafarroako udal hauteskundeetarako: Espainiako Barne Ministeritzak eskainitako datuak.
  - Arabako Batzar Nagusietarako eta udal hauteskundeetarako: Arabako Foru Aldundia.
  - Bizkaiko Batzar Nagusietarako eta udal hauteskundeetarako: Bizkaiko Foru Aldundia.
  - Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta udal hauteskundeetarako: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Berme Batzordearen ikuskariek mahaiez mahai jasotako datuak**. Ikuskariek egindako zenbaketan, zenbaketa ofizialetan ez bezala, banatu egin dira AuB eta legez kanpo utzitako Herri Plataformek lortutako datuak batetik eta ohiko bozka baliogabeak ("baliogabe teknikoak") bestetik.

  Ondorengo taulan, Berme Batzordearen ikuskariek zuzenean zenbatutako mahaiak zehazten dira herrialdez herrialde. Gainerako mahaien informazio zuzenik ezin izan dugu eskuratu, edozein dela kausa: ikuskariei euren lana egiten galarazi zitzaielako, zenbaketa zehatza egin ezin izan zutelako edo emaitza horiek Berme Batzordera iritsi ez direlako. Taula honetan ikus daitekeen bezala, udal hauteskundeetarako, hautes zerrendak legez kanpo uzteak eragindako mahai guztien %83,8ari buruzko informazioa eskuratu ahal izan dugu. Foru hauteskundeen kasuan, berriz, mahai guztien %77,3ari buruzko datuak lortu ditugu.

	Udal hauteskundeak			**Foru hauteskundeak**		
	Legez kanpo utzitako kandidaturak aurkezten zireneko udalerrietako mahai kopurua	Ikuskariek zenbatutako mahaiak	%	Mahaiak	Ikuskariek zenbatutako mahaiak	%
Araba	350	324	92,6%	381	320	84,0%
Bizkaia	1.283	893	69,6%	1.380	1.043	75,6%
Gipuzkoa	771	762	98,8%	908	889	97,9%
Nafarroa	469	428	91,3%	931	530	56,9%
	2.873	**2.407**	**83,8%**	**3.600**	**2.782**	**77,3%**

Bi datu iturri horiek (erakunde publikoenak batetik eta ikuskarien bidez zuzenean lortutakoak bestetik), honela uztartu ditugu gure azterketan: iturri ofizialetatik, emandako bozken kopuruak, ofizialki "baliogabe"tzat jotako bozken kopuruak, kandidatura legeztatu bakoitzak jasotako bozkak eta bozka zuriei buruzko datuak bildu ditugu. Ikuskarien bidez lortutako datu zuzenak, berriz, ofizialki "baliogabe" gisa zenbatutako bozken barruan AuB edo Herri Plataformei dagozkienak zenbait diren zehazteko erabili ditugu. Ikus ditzagun, zehatzago, bide horretan egindako eragiketak.

Nafarroako Parlamenturako zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Orokorretarako hauteskundeen emaitzak zehazteko prozedura:

Hautes-barruti bakoitzean zenbatu ahal izan ditugun mahaietan, ofizialki "baliogabetzat" emandako bozken artean, AuBren bozkak kalkulatu ditugu, ikuskarien emaitzetan oinarrituz. Horretarako, lehenik, "baliogabe teknikoek" emandako bozkekiko osatzen duten ehunekoa kalkulatu dugu. Zehazki, hona hemen, hautes barruti bakoitzean zenbatutako mahaiek eman dizkiguten koefizienteak, emandako bozkekiko baliogabe teknikoek osatzen duten ehunekoarekin:

ARABA	
AIARA / AYALA	0,688723304167843%
VITORIA-GASTEIZ	0,721058121243525%
RESTO DE ARABA	0,845245429451534%
GIPUZKOA	
BIDASOA-OIARTZUN	0,626938555044540%
DEBA-UROLA	0,630884125529177%
DONOSTIALDEA	0,526832329599393%
ORIA	0,674524051537165%
BIZKAIA	
BILBO/BILBAO	0,487888474047399%
BUSTURIA-URIBE	0,423051707444338%
DURANGO-ARRATIA	0,567704872328814%
ENKARTERRIAK/ENCARTACIONES	0,636681252705952%
NAFARROA	
Barruti bakarra	0,371466402210242%

Ondoren, ehuneko hori emandako bozkei aplikatu, eta "baliogabe tekinikoak" kalkulatu ditugu (8.512 bozka guztira Hegoalde osoan). Azkenik, "baliogabe ofizial" guztiei horrela kalkulatutako "baliogabe teknikoak" kenduz, barruti bakoitzean AuB-k lortutako bozken kopurua finkatu dugu. Bukatzeko, noski, horrek ekarriko zuen eserleku banaketa egin dugu, hautes legedia eta D'Hondt legea aplikatuz.

Udal Hauteskundeen emaitzak zehazteko prozedura:

Hiru prozedura ezberdin erabili ditugu udal hauteskundeen emaitzetarako:

1. Herri Plataformarik aurkezten ez zen udalerrietan edo Herri Plataforma legeztatua zenetan, emaitza ofizialak bere horretan hartu ditugu.

2. Herri Plataforma legez kanpo utzitako udalerrietan:

    - Ikuskariek bildutako informazio zuzena dugun udalerrietarako, mahaiez mahai zenbatutako bozketan oinarritu gara, Herri Plataformari dagozkionak zenbatuz. Horrela, baliogabetzat jo diren bozken artean legez kanpoko Herri Plataformei emandako bozken proportzioak atera ditugu udalerriz udalerri. Ondoren, proportzio horiek ofizialki baliogabetzat jo diren datuei aplikatu dizkiegu. Prozedura hau erabili

dugu 145 udalerrietarako, tartean lau hiriburuak eta udalerri nagusi gehienak.

- Ikuskarien bidezko informazio zuzenik eskuratu ez dugun udalerrietarako, herrialde berean zenbatu diren mahaien artean, baliogabe teknikoek emandako bozkekiko osatzen duten ehunekoa kalkulatu dugu. Ondoren, ehuneko hori udalerri bakoitzean emandako bozkei aplikatuta, udalerri bakoitzeko “baliogabe teknikoak” kalkulatu ditugu. Azkenik, ofizialki baliogabetzat jotako bozkei aurreko kopurua kenduz, udalerri bakoitzeko Herri Plataformaren bozka kopurua kalkulatu dugu. Prozedura hau, 56 udalerrietarako erabili dugu.

3. Aurkeztutako kandidatura bakarra Herri Plataforma izan eta legez kanpo utzi dituzten udalerrietan, ez da udal hauteskunderik egin. Kasu horietan, eta kalkuluak egiterakoan, foru hauteskundeetan AuBk eskuratutako emaitzak jarri dizkiegu Herri Plataforma horiei.

Azkenik, datu horiek guztiek ekarriko luketen zinegotzi banaketa kalkulatu dugu, d´Hondt legea eta hauteskunde alorreko legediak dioena aplikatuz.

II. ERANSKINA: Europako Parlamentuko osaketa, estatuz estatu

- Excel dokumentu gehigarrian aurkituko duzue. URL honetan**:**

http://www.bermebatzordea.net/Europar_soziologoen_lanaren_emaitza.xls